

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 500 hitz gehienez. 	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzen da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ODONTOLOGIA FORENTSEA

1897ko maiatzaren 4an, Parisko goi-mailako klasea *Karitate Bazarrean* bildu zen, azken urteetan bezala. 1885ean hasi ziren han biltzen eta Parisko egutegi sozialeko datarik nabarmenetako bat zen. Azoka horretan, aberatsek zenbait artelan, liburu eta txikikeria saltzen eta erosten zituzten, behartsuei laguntzeko, eta beren posizio sozialaz harro agertzeko.

Urte hartako azokarako, 80 metro luze eta 20 metro zabal zen egurrezko barrakoi bat eraiki zuten, eta estalkia oihalez egin zuten. Barrakoian asmakizun berri bat jarri zuten, bisitariak erakarri eta entretenitzeko: zinematografoa. Baina tramankulua ez zebilen ondo; teknikariak esan zuenez, aireztatze egokirik ez zegoelako. 16:15ak aldera, zinematografoaren eter gasezko lanpara itzali zenean, langileak pospolo bat piztu zuen zer gertatu zen ikusteko. Pospoloak eztanda txiki bat eragin zuen eta, berehala, suak hartu zuen barrakoia; ate birakariak trabatuta geratu ziren, eta erreta hil ez zirenak zapalduta hil ziren.

Guztira 126 izan ziren hildakoak, horietatik 120 emakumezkoak. Egia da ekitaldiak emakume gehiago biltzen zituela –hala ere, ez proportzio horretan– eta, egun hartan, haien soinekoek suari mesede eta ihes egiteko mugimenduei kalte egin zieten. Baina gizonezko gehienek nahiago izan zuten «emakumeak eta haurrak lehendabizi» kontzeptua beste baterako utzi. Hasieran agintariek anarkistei bota zieten errua, baina istripua izan zela garbi eduki zutenean, zinematografoko langileari zortzi hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zioten. Gerora zigorra barkatu egin zioten, hark bai, hainbat pertsona salbatzeko ahalegina egin zuelako.

Goi-mailako damek soinean zeramatzen bitxiak ez zuten balio izan gorpuak identifikatzeko, gau hartan bertan gorpuei dena lapurtu zitelako. Biktimen senitartekoek soluzio bat behar zuten, eta irtenbidea Paraguaiko kontsulari bururatu zitzaion: hildakoen dentistengana jotzea, haien hortz-haginen fitxak eskuratu eta hildakoen hortz-haginekin konparatzeko. Horrela identifikatu zituzten odontologia-zerbitzua ordaindu ahal zuten aristokraziako eta burgesiako hainbat kide. Haginlaria ordaindu ezin zuten biktima txiroak zulo komun batean lurperatu zituzten. Eta hala sortu zen odontologia forentsea.

IRAZUSTABARRENA, N.

Argia. 2022ko azaroaren 20a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer dio testuak Parisko *Karitate Bazarraz*?

- a) 1897an dirudunek antolatu zutela lehenengo aldiz.
- b) 1885etik aberatsen artean ospe handia izan zuela.
- c) Goi-mailako klaseak ez zuela gogoz parte hartzen.

2. Zer berezitasun izan zuen 1897ko azokak?

- a) Jendea joateko garaiko asmakizun bat erabili zutela.
- b) Urte hartan aire zabalean ospatzea erabaki zutela.
- c) Erabili zuten barrakoiak 20 metroko luzera zuela.

3. Zergatik hil ziren emakume gehiago?

- a) Lehendabizi haurrak salbatu zituztelako.
- b) Askoz emakume gehiago zeudelako.
- c) Beren jantziek erraz hartu zutelako su.

4. Azkenean, noren errua izan zen gertatutakoa?

- a) Zinematografoko langilearena.
- b) Garaiko anarkistena.
- c) Inorena ez.

5. Zer dio testuak hildakoen identifikazioaz?

- a) Bitxiak eta hortz-haginen fitxak erabili zituztela.
- b) Ezinezkoa izan zela gorpu guztiak identifikatzea.
- c) Biktimen senitartekoez ez zutela kontsulak emandako irtenbidea onartu.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A LIBURUAREN EGUNA DONOSTIAN

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Donostia Kulturak liburu-azoka antolatuko du Gipuzkoa plazan, liburu-denden elkartearekin batera.

Giro alaia sortu nahi da eta, horretarako, goizean, *Alizia herrialde miresgarrian*-eko pertsonaien kalejira koloretsua egongo da; halaber, istorio horretan oinarritutako bideo bat ere ikusi ahal izango da.

Arratsaldean, programak jarraipena izango du Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen *Zenbat buru, hainbat liburu* saioarekin. Pailazoek 30 euroko txartel-bono bana emango diete iaz liburutegi sarean mailegu-zerbitzuetan liburu gehien hartu zituzten 10 hurrei.

<www.kulturklik.euskadi.eus> Egokitua

B LIBURUAREN EGUNA LARRABETZUN

Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekintza antolatuko dira datorren astean Larrabetzun, hala nola, tailerrak, solasaldia eta errezitala.

Eskolako umeei komiki-tailerra izango dute apirilaren 25ean eta 29an, eta idazketa-tailerra apirilaren 27an. Hilaren 28an, 19:00etan, solasaldia egongo da Irati Jimenezekin.

Bestalde, apirilaren 29an, 21:00etan, Anarik kontzertua eskainiko du gaztetxean. Sarrerak eskatzeko, kulturbilgunea@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da; gehienez sarrera bi hartu ahalko dira pertsonako. Azkenik, apirilaren 30ean, 19:30ean, *Etxepare, jalgi hadi batura* errezitala egongo da Xabier Amurizaren eskutik.

<aikor.eus> Egokitua

C LIBURUAREN EGUNA VITORIA-GASTEIZEN

Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzeko, Liburu Truke Azoka berreskuratuko du Gasteizko Udalaren Liburutegi Sareak. Ohikoa denez, Udalaren Liburutegi Sareak milaka liburu jarriko ditu eskura azokara hurbiltzen direnentzat.

Hauxe da aurtengo leloa:

Bilatzen duzun liburua zure zain dago, eta zeuk ere baten bat izango duzu besteentzat.

Zatoz eta aurkitu!

Gainera, asteburu osoan zehar VII. Gazteentzako Nanoipuin Lehiaketako kontakizunak entzuteko aukera egongo da. Halaber, kontakizun horien gainean egindako argazki, ilustrazio eta animazioen karatulen erakusketa ikusgai egongo da.

<bibliogasteiz.com> Egokitua

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

6.	Hurbilduko direnek beren liburuak jarri ahal izango dituzte besteen eskura.
7.	Umeentzako hainbat jarduera antolatu dute egun batzuetan.
8.	Ekitaldi baterako ezinbestekoa da aldez aurretik tokia izatea.
9.	Liburutegietako irakurle zintzoenak sari bat izango dute.
10.	Jardueren artean ipuin laburren inguruko ekitaldia egongo da.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Udal liburutegian dagoen liburu-aukera eskasa da, eta, gainera, dauden liburuak oso aspaldikoak dira. Udaletxean kexa jartzea erabaki duzu.

Azaldu zer kalte sortzen dituen egoera horrek, eta proposatu zein izan daitekeen konponbidea.

2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.

Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu, **aparteko orrian idatzita aurkituko duzun sarrera kontuan izan gabe**.

GAIA: Gaur goizean lagun baten mezua jaso duzu.

■ **Hauxe da jaso duzun mezua:**

The screenshot shows an email client window titled "Idatzi mezua". At the top, there are three buttons: "Bidali", "Gorde", and "Baztertu". Below these are fields for "Norentzat:" and "Gaia:". The "Gaia:" field contains the text "Erantsi fitxategia". Below the fields is a rich text editor toolbar with various icons for bold, italic, underline, font color, background color, bulleted list, numbered list, indent, outdent, link, unlink, and text color. The main body of the email contains the following text:

Kaixo, Alazne:

Zer moduz? Ni ondo, baina kezkatuta, ez dakidalako zer egin. Dakizunez, oraindik jarraitzen dut lanean Administrazioan bajak betetzen. Egun batean hemen, hurrengoan han, beste batzuetan langabezian...

Atzo enpresa pribatu batetik deitu zidaten eta urte osorako kontratua eskaini zidaten. Zuk enpresa pribatuan lan egiten duzunez, zer aholkatuko zenidake?

Koldo

■ Erantzun iezaiozu zure lagunak bidalitako mezuari. **Kontuan izan mezuaren hasiera dagoeneko idatzita dagoela; beraz, zuk hortik aurrerakoa idatzi behar duzu.**

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

[A eredua]

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «ODONTOLOGIA FORENTSEA»

1.	B	2.	A	3.	C	4.	C	5.	B
----	---	----	---	----	---	----	---	----	---

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «LIBURUAREN EGUNA»

6.	C	7.	B	8.	B	9.	A	10.	C
----	---	----	---	----	---	----	---	-----	---